

DILIGENTZIA

Izenpetzen duenak egiten du, honako hau agerrarazteko:

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025eko irailaren 18ko Erabakiaren bidez (gai zerrendako 8. gaia), 2025erako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauan aurreikusitako dirulaguntza izenduna EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEARI "EHBE" ematea onartu zen, 2025erako "Bertsoa-com", "Bertso Udalekuak" eta "Bertso Saioak" proiektuei dagokienez, horiek arautzeko hitzarmena sinatzeko baimena eman zen.

Bizkaiko Foru Aldundiko Idazkaritza Nagusiari kontsulta egin ondoren, nahikoa da eginbide hau luzatzea, alderdiek sinatuko duten hitzarmeneko "Dirulaguntzaren justifikazioa" hirugarren klausulan dagoen akatsa azaltzeko.

Hirugarren klausula honen hasierako idazketan adierazten da 2025eko martxoaren 28a dela egindako prozesuaren justifikazioa aurkezteko azken eguna.

Argi dago data okerra dela; izan ere, hitzarmenaren lehenengo klausulan zehazten den bezala, dirulaguntzaren xede diren proiektuak 2025. urtean garatuko dira.

DILIGENCIA

La extiende el que suscribe, para hacer constar que:

Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, (Asunto nº8 del Orden del Día) de 18 de septiembre de 2025, se aprobó el Convenio para la concesión de la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025, a favor de EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA "EHBE", para la financiación parcial durante el año 2025 de los proyectos "Bertsoa-com", "Bertso Udalekuak", y "Bertso Saioak", se autorizó la suscripción del convenio regulador de la misma.

Consultada a la Secretaría General de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera suficiente la extensión de la presente diligencia para explicar la errata que contiene la cláusula tercera "*Justificación de la subvención*" del Convenio que van a firmar la partes.

En la redacción inicial de esta cláusula tercera se señala el 28 de marzo de 2025 como fecha límite para la presentación de la justificación del proceso realizado.

Es evidente que la fecha es errónea, teniendo en cuenta que, tal y como se determina en la cláusula primera del convenio los proyectos objeto de la subvención se desarrollarán durante el



año 2025.

Horregatik, eginbide honen bidez, justifikazioa aurkezteko epemuga gisa adierazitako urtea zuzentzen da, 2026ko martxoaren 28ra arte.

Por ello, mediante la presente diligencia se procede a corregir el año señalado como fecha límite para presentar la justificación, siendo hasta el 28 de marzo de 2026.

